



Eskualdeko talogileek euren lana erakutsiko dute bihar II. Talo Egunean

TOLOSALDEA ▶

Eskualdeko
segalariak
ariko dira
gaur Euskal
Herrikoan

Sega-pikatzte eta
taldekako saioetan
lehiatuko dira ▶ 2

LEITZA ▶ Udalak eta Plazaolako
Partzuergoak antolatuta, herriko
plaza jai gune bihurtuko dute

EGITARAUA ▶ Talogileekin batera,
herri kirol erakustaldia eta haur
jolasak izango dira herrian ▶ 7



Espainiako bandera udaletxetik zintzilik

LIZARTZA ▶ Herritarren protesten eta oihuen gaintik, Regina Otaola Lizartzako alkateak, bere udal korporazioak lagunduta, Espainiako bandera zintzilikatu zuen atzo udaletxeko balkoian; Lizartzako EAEk «ekintza eta euren jarrera salatu du». ASIER IMAZ ▶ 6

TOLOSA ▶

Beotibarko Gudari buruzko ekimenak antolatu ditu EAEk ▶ 2

TOLOSALDEA ▶

Haurrak protagonista izan dira eskualdeko jai guztietan

Lizartza, Zizurkil,
Elduain, Alkiza,
Izaskun eta Bedaion
ekitaldi ugari gaur ▶ 4-5



Elduainen ebeko txikieneztat puzgarriak jarri zituzten. I. GARCIA

ELIKAGAI XII. AZOKA BEREZIA

VILLABONA



IRAILAREN 8an
Larunbata - 09:00etan

TOLOSA ▶

Elosegiren argazkiak bildu ditu Aranzadik

Erakusketaz gain, liburu ere argitaratu dute; hau, gaur aurkeztuko dute

ERREDAKZIOA

Aranzadi zientzia elkarteak sortu zeneko 60. urteurrena betetzen da aurten. Honen bestez, Jesus Elosegiren jaiotzaren mendeurrenarekin bat eginez, bazkide fundatzaile eta elkartearen bultzatzaile izan zenari omenaldi berezi bat prestatu diote. Honetarako, argazkilari profesional gisa egin zuen lanaren adierazgarri diren argazki erakusketa prestatu dute Aranzadikoei. Bertan, garrantzitu jarri diren argazki jendartean ezagutzera emanez.

Aranzadik Jesus Elosegi Tolosarraren Aranzadik-Fondoaren digitalizazioa burutu du, eta Lazkao Aita Beneditarren Komunitatearekin egindako lankidetzaz hitzartutako eskerrak, elkarteko artxibo nagusian dago gordeta. Hala ere, gaurtik hasi eta urriaren 6ra arte Aranburu jauregian egongo da ikusgai. Historia etnografia eta politika aldetik abiatuta, familia giroan atzeman zituen uneak ikus daitezke bere irudietan, baita argazki profesional gisa egin zituen lanak ere. Mendiko ibilerak ongi deskribatzen dituzten irudiak, erbesteko urteak, bere iker-tzaile-jardunaren alderdiak, eta nola ez, Tolosa bere jaioterriko oroitzapenak islatu zituen argazkilariak bere erretratuetan.

Erakusketa honekin batera, 170 argazki biltzen dituen liburu ere argitaratu du Aranzadik, Tolosako Udalaren laguntzarekin. Hau gaur aurkeztuko dute 12:30ean, udaletxean.

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Autoa. Fiat punto.
680 93 30 17/660 96 21 09.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Españier Breton arrazako bakur buxi-marroia topatu dute Gaztelun. 1-3 urte artekoa. Txip-ik gabe.

SEGA ▶

Bi eskualdeetako segalariak ariko dira gaur, Ordizian

Euskal Herriko Segapikatze Txapelketa eta taldekakoa jokatu dituzte bertan

ESTI EZEIZA

Eskualdeko nahiz Euskal Herriko segalari ugari bilduko dira gaur Ordizian. Bertan, bi txapelketa jokatu dituzte. Alde batetik, lehendabiziko aldiz, Euskal Herriko Segapikatze Txapelketa jokatu dute; bestetik, II. Euskal Herriko taldekakoa izango da.

12:00etan ekingo diote Segapikatze saioari, eta hau Ordiziako plazan egingo da. Norgehiagokari dagokionez, nazioartean egin ohi den moduan gauzatuko da. Izan ere, Almitza elkarteak, lehiaketaren antolatzailea den kanpoko eskarmentua hartu eta Euskal Herrira ekarri nahi izan du. Honek, nazioarteko erako sega ezagutarazteaz gain, bertako tradizioa eutsi eta zabaltzea du helburu.

Arratsaldeko saioari dagokionez, hau Ordiziako Jauregi Etxeberria baserriaren zelaian izango da, Iriarte auzoan, eta 17:30ean hasiko da. Iaz jokatu zuten lehendabiziko aldiz,

Tolosan, eta 24 taldek hartu zuten parte.

Sega-pikatze Txapelketan 21 lagun lehiatuko dira, emakumeak nahiz gizonezkoak. Hauetatik lau eskualdekoak dira: Joxe Gabirondo gazteluarra; Arkaitz Arteaga, Baliarraingoa, Jokin Garmendia anoetarra eta Iurre Olanogazteluarra. Epaimahaia lau kidek osatuko dute: Mikel Aranalde, Markox Insausti, *Ibia* eta Luix Irazustak. Hauek, partaide guztien segak hartu eta banan-bana aztertuko dituzte. Horietatik txukunenak daudenak eta ahoa mehen utzi dituzten sei edo zortzi pikatzaileen segak hautatuko dituzte. Ondoren, horien arteko sailkapena osatuko dute. Segak, belarra behar bezala ebakitzeko moduan pikatu beharko dituzte.

Arratsaldekoan berriz, 17 talde lehiatuko dira. Gizonezkoek 200 metroko saila ebaki beharko dute, eta emakumeek 120koa. Parte-hartzaileek edozein motatako sega erabili ahal izango dute.



Iaz Tolosan jokatu zuten I. Taldekako Segapikatze. E. EZEIZA

II. TALDEKAKO TXAPELKETA ▶

Ordiziako Jauregi Etxeberria baserriaren zelaian, Iriarte auzoan jokatu da 17:30ean.

PARTE-HARTZAILEAK

- ▶ Arratiarrak (Bizkaia).
- ▶ Alkorrak (Gipuzkoa).
- ▶ Gaztelu 1 (Gipuzkoa).
- ▶ Gaztelu 2 (Gipuzkoa).
- ▶ Asteasu (Gipuzkoa).
- ▶ Idiazabal (Gipuzkoa).

- ▶ Anoeta (Gipuzkoa).
- ▶ Amalias (Gipuzkoa).
- ▶ Zaldibia (Gipuzkoa).
- ▶ Baliarrain 1 (Gipuzkoa).
- ▶ Baliarrain 2 (Gipuzkoa).
- ▶ Legorreta (Gipuzkoa).
- ▶ Mixelenatarrak (Gipuzkoa).
- ▶ Lazkao (Gipuzkoa).
- ▶ Bertsolariak (Gipuzkoa).
- ▶ Leitzarrak (Nafarroa).
- ▶ Elgarrekin.

TOLOSA ▶ POLITIKA

Beotibarko Guda gogorarazteko ekimenak antolatu ditu EAE-ANVk

Lehen hitzaldia hilaren 11n izango da eta 19an, ekitaldi politikoa egingo dute Triangulon

E. EZEIZA

1321ean gertatu zen Beotibaroko Gudua gogoraraziz, Tolosako EAE-ANVk ekimen berri bat prestatu du «gure naziotasunaren aldarrikapena» egiteko. Hala, *Nafar erresumatik Euskal estatura* izenburupean zenbait ekintza antolatu ditu hurrengo bi asteetarako. Hilaren 11n, 20:00etan, Floren Aoz ariko da hizlari lanetan. Honek, Beotibarko Gudua eta Euskal Herriaren eraikitza nazionala izeneko hitzaldia eskainiko du Udaletxeko Pleno Aretoan.

Bigarren saioa hilaren 19an izango da, 20:00etan. Hemen egingo den ekitaldi politikoa

ikurrina eta Nafarroako ikurrak jarriko dituzte. Ondoren, agurra dantzatu eta hizlari batek ekitaldiaren zentzu politikoa gaurkotatzen azalduko du. Ekimen hauek Tolosa, Berastegi eta Gorritiko hautetsi eta herritarren laguntzarekin eratu dituzte. Halaber, abertzale eta herritar orori dei egiten diete ezker abertzalekoek ekitaldietan «aktiboki» parte har dezaten.

751 urte beranduago

Iaz Tolosako Udalak hiriarren sorreraren 750. urteurrena ospatu zuen. Baina ezker abertzaleak ospakizun hura erre-



EAE-ANVren ekimenaren aurkezpeneko irudi bat. I. GARCIA

eratu egin zuen, «Gaztelako erresumaren menperatzearen ondorio izan zelako eta indarrez menderatzearen ondorioak ez direlako ospatzen».

Hala ere, garai hartako gertaerak gogoratzeak zentzu duela uste dute EAE-ANVkoek. Izan ere, 1321eko irailaren 19an Beotibarko Guda eman zen. Hemen, Nafarroako Erresuma, armadako nafarrak eta Gaztelako Erresumaren aldeko gipuzkoarrak elkarren aurka aritu ziren. Honen bestez, gipuzkoarrek nafarren aurka lortu zuten garaipena bezala ezaugarritzen da Beotibarko guda.

Ezker abertzalekoek azaldu-takoaren arabera, 1200ean,

Gaztelak, Nafarroako Erresumaren mendebaldea bereganatzeko interes komertzial eta militarrek tarteko, gaurko Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa konkistatu zituen eta 1256an, herri berri foru berriak eman zituen Gaztelako Erresumaren mugak defendatzeko eta Nafarroako mendebaldea bereganatzeko.

EAE-ANV-k «zorigaitzokoa anai-arreben arteko borroka» bezala deskribatzen du Beotibarko Guda. Horregatik, guda hori baliatu nahi du euskaldunen arteko borroka eta Euskal Herriaren aurkako erasoak gaitzesteko eta honen nazio-izaera aldarrikatzeko.

VILLABONA ▶ MENDIA

Aizkardi elkartekoek Pirinioetara joateko autobusa bete dute

Hilaren 15 eta 16an Huescako Ordesa bailarara joango dira Monte Perdido hirumilako mendi ezaguna igotzeko

IMANOL GARCIA

Aizkardi elkarteak urtero egin ohi duen Pirinioetarako aste-buruko irteera antolatu du hilaren 15 eta 16rako. Herenegun zen azken eguna izena emateko eta ohi bezala autobusa bete dute. Bi lagun gelditu dira itxaron zerrendan. Huescako (Espainia) Ordesa bailarara joango dira eta Monte Perdido (3.355 metro) mendia igoko dute.

Larunbatean, hilaren 15ean, abiatuko dira Villabonako kiroldegitik 06:00etan eta Torlara joango dira. Salorons pasabidetik hasiko dira goera eta Floreseko lur zerrendatik joango dira Goriz aterperaino eta bertan igaroko dute gaua. Hurrengo egunean, gosaldutik ondoren, Monte Perdido mendira igoko dira, gero Ordesa bailarara jaitsi eta autobusa hartu ondoren Villabonara abiatzeko. 60 euro ordainduko dituzte irteeran parte hartzen dutenek (55 euro Aizkardiko kideek).

Aurrera begira

Urtea bukatu arte beste ekitaldi batzuk antolatu dituzte ere Aizkardikoek. Alde batetik irteerak antolatu dituzte, urriaren 21ean Aizgorrira eta abenduaren 16ean Errioxako San Lorenzo mendira. Azaroan, 24. Mendi Astea antolatuko dute, 19tik 25era.

Dagoeneko badituzte Mendi Astean izango diren bi ekitaldi lotuta. Alde batetik, Angel Cuervo tolosar bidaiariaren *Mekong ibaia, bizitza tsuna-*



Ordesa bailara, Monte Perdido mendirako bidean. HITZA

miaren ondoren ikus-entzuzkoak eta, bestetik, Patxi Usobiaga munduko eskalada txapelidunaren *Patxi mundu bertikal batean* emanaldia. Horrez gain, ohi denez, herriko edo inguruko mendizaleek egindako espedizioen bat ere egitarauan jartzen dute.

Datorren urtera begira ere laster jarriko dira Aizkardiko-

ak, mendi irteeren zerrenda prestatzeko. Bien bitartean, lokal propioa izatea nahiko luke eta horretarako harremanetan daude Udalarekin. Bestalde, hainbat elkartetan ohikoa den gaia ere ahotan dute, hau da, bazkide berriek elkartearen ardura hartzearena. Oraingoz, baina, ez dirudi horrelakorik gertatuko denik.

VILLABONA ▶

Trenbideko katenariak hondatu dituzte

Atzo goizean zehar arazoak eragin zituen ekintzak Renferen tren zerbitzuetan

ERREDAKZIOA

Ostegunetik ostirala bitarteko gauean Renferen trenbide sareko katenariaren kontrapisua hautsi zuten Villabona eta Andoain artean, eta, ondorioz, tren zerbitzua gorabeheratsua izan zen atzo goizaldean, batik bat, Irun eta Brinkola arteko aldirikoetan. Arazoa konpondu arte trenik ez zen ibili

Andoain eta Zumarraga artean, eta Renfe autobusak jarri zituen zerbitzu hori osatu ahal izateko.

Renferen arabera 5.000 erabiltzaileei, aldiriko zein ibilbide zuzenaren trenetan bidaizten dutenei, eragin dio sabotaia. PSE-EEk ezker abertzaleari sabotaia salatzea exijitu dio, «bestela ekintza hori babestu egingo lukete».

PING PONG ▶

Usabalen Ping Pong Eskola antolatuko dute

ERREDAKZIOA

Aurtengo denboraldian ping pongeko C.D. Olaederra taldea bigarren mailan ariko da. Villabonaz gain Tolosako Usabal kiroldegian egingo dituzte entrenamenduak, «guretzako bakarrak izango den gela zabai batean», azaldu dute taldeak, kiroldegiarekin akordioa lortu ondoren. Bertan

Ping Pong Eskola jarriko dute martxan. Horregatik, taldearen izen berria Usabalgo Mahai Tenis Taldea Tolosa izango da.

Bestalde, gaur bertan taldeko bi jokalarik, Txema Armentiak eta Emiliano Antonek, Euskadiko Beteranoen Opean parte hartuko dute Aieteko kiroldegian, 40 urtetik gorakoen mailan.

ANOETA ▶

Dantzan eta pilotan matrikula egiteko aukera

Udal dantza eta pilota eskolako matrikulazioa abian jarriko dute etzitik datorren ostiralera arte. Udaletxean egin daiteke 09:00etatik 13:00etara. Klaseak hilaren 24tik aurrera izango dira

AHT ▶

Elkarlanaren bilera etzi Tolosan

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak bilera egingo du etzi, 20:00etan, Tolosako Kultur Etxean. Eskualdeko jende guztia elkartu nahi dute, zer egin erabaki eta herritan zer egoera dagoen jakiteko.



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

LIZARTZA ▶ POLITIKA

Espainiako bandera udaletxean

Plazan elkartu ziren herritarrek txistu eta oihu eginaz erantzun zuten

ASIER IMAZ

Atzo 09:00etan Lizartzako udaletxeko balkoian Regina Otaola (PP) azaldu zen udal korporazio guztia atzetik zuela. Beheran, herriko plazan hain zuden ere, 55 herritar inguru zeuden zain, eskuan ikurrinak eta presoan aldeko ikurrak zituztela. Hauen aurrean, udaletxera bai menik gabe inor sar ez zedin, ertzainez osaturiko giza hesia aurkitzen zen. Tentsioa, oihuak, txistuak eta balkoian

aurkitzen zirenen txaloak, Espainiako bandera zintzilikatu zutenean.

Osoko bilkura erdara hutsean

Ertzaintza 08:00etarako Lizartzako plaza inguruan aurkitzen zen. Herritarrek, *Geurea Ikurrina* jartzen zuen pankarta eskuan zutela, udaletxe ingurura gerturatzen hasiak ziren elkarretaratzea egiteko. Bi aldeak prest aurkitzen zirenean, Regina Otaola buru zutela, Lizartza-

ko udal korporazioko kideak agertu ziren bizkartzain eta ertzainez inguratutik. Herritarrek «lapurrak, alde hementiko» oihukatuz egin zieten harriera PPren alkate eta 6 zinegotziei.

08:30ean hasi zen osoko bilkura udaletxeko pleno aretoan. Erdara hutsean, eguneko gaiak aho batez onartu zituzten PPren kideek kazetarien aurrean. Gaien artean, Larreneko Zubiaren Baldintza Pleguen onarpena eta Kutxa-ri kredituzko kontu korrontea eskatzea aurkitzen ziren. Bilkura amaieran, Durangon ETAK eginko atentatua salatu zuten.

11:00etan salaketa

Ertzaintzak baieztatu zuenez, Regina Otaolak salaketa jarri zuen atzo goizean Tolosako Ertzaintzaren egoitzan, 11:00ak aldera; «udaletxe kanpoan gertatuagatik eta heriotz mehatxuak jaso zituelako». Poliziak bi kasuak aztertzeke ikerketa zabaldu duela jakinarazi du.



Ertzaintza prest. Espainiako bandera jartzen ari zirenean giza hesia osatu zuten ertzainek. A. IMAZ



Bilkura hasiera. Laura Garrido (PP) eta Regina Otaola (PP) izan ziren lehenak udaletxera gerturatzeke garaian. Osoko bilkura ere beraiek zuzendu zuten. A. IMAZ



Herritarren protestak. *Geurea Ikurrina* lelopean elkartu ziren 55 lagun inguru. Herritar hauek oso haserre agertu ziren; «osoko bilkuran parte hartzen ez digute utzi eta balkoian Espainiako bandera jartzeke garaian, txaloka eta barrezka herria irainduz ibili dira». A. IMAZ



ELDUAINGO UDALAK

**HERRIKO JAIETARA
GONBIDATZEN
ZAITUZTE
EKITALDI UGARI,
MUSIKA MUNDIALA
AFARI ZEIN BAZKARI
GOXO GOXOAK**

**KONTZEJU
TABERNAK**



Donostialdeko enpresa batek AGENTE KOMERTZIALA BEHAR DU GOIERRIN eta DONOSTIAN - ERREFERENTZIA: 07-AGK

Eskaintzen da:

- Etorkizuneko proiektu batean parte hartzea.
- Merkataritza kontratua.
- Soldata interesgarria.
- Beste lan komertzialekin bateragarria.

Eskatzen da:

- Euskaraz jakitea ezinbestekoa da.
- Izaera dinamikoa izatea eta harremanetarako gaitasuna edukitzea.
- Autoa izatea

Kontuan hartuko da: • Publizitatea eta komertzial lanetan eskarmentua izatea.

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 20 baino lehen. gizabaliabideak@jarduna.net
HELBIDE ELEKTRONIKORA. Gogoan izan erreferentzia zehaztea

LEITZA ▶ II. TALOAREN EGUNA

Villabona, Saralegi eta Talotegia II. Talo Egunean izanen dira bihar

Basa-Kabik, Musunzarrek, Txokok, Arakindegia, eta Gaztañagak taloan oinarritutako platerak egingen dituzte



Villabona, Zabalo, de Karlos, eta Gabriel eta Kristina Saralegi atzo udaletxean egindako aurkezpenean. N. G.

MAITANE VILLABONA ▶ TALOGILEA

«Helburuetako bat gure arbasoek taloa nola egiten zuten erakustea da»

Maitane Villabona (Leitza, 1988), bere familiarako kideak bezalaxe Euskal Herriko zenbait azoketan taloak egiten aritzen da. Bihar Leitza izanen da.

Zenbat pertsona biltzen zarete zuen postuan?

Iaz 17 pertsona ibili ginen lanean, denak familiarakoak, batzuk oreka egiten, besteak erretzen... Taloak egiteaz gain, talogile batzuk haurrei erakutsi egiten diete. Azken batean azokaren helburuetako bat gure arbasoek taloa nola egiten zuten erakustea da.

Zer talo eskaintzen dituzue?

Txistorrarena, txokolatereana,



N. GARZIA

gaztarena eta hirugiharrearena.

Hauetatik arrakasta gehien duena zein da?

Txistorrarena da gehien saltzen dena, baina urtero txokolate gabe gelditzen gara, umeek hau oso gustuko baitute.

Eguraldiak eragirik izaten al du salmentetan?

Egia da hotzarekin agian taloa gusturago jaten dela, baina lehengo urtean beroa egin zuen arren jendeak gustura jan zuen. Azken batean taloa jateko aukera gutxi izaten dira eta jendeak jan egiten du, hotza edo beroa egin arren. ◀

NAIARA GARZIA

Bihar II. Talo Eguna ospatuko dute Leitza eta horretarako herriko plaza jai egun honen gune bihurtuko da. Hori dela eta, arbasoentzat hain oinarritutako jai egunaren inguruan hainbat ekitaldi antolatu ditu Plazaola Partzuergoak. Atzo, Leitzako udaletxean II. Talo Egunaren aurkezpena egin zuten eta bertan bildu ziren Xabier Zabalo Leitzako alkatea, Yolanda de Karlos Plazaola Partzuergoko kudeatzailea, Maitane Villabona eta Kristina Saralegi talogileak eta Gabriel Saralegi herri kirol jaialdien antolatzailea.

Errotak ere ikusgai

Leitzar bat baino gehiago dira urtean zehar Euskal Herriko zenbait azoketan talo egiten eta saltzen ibiltzen direnak, villabonatarrek eta saralegitarrak, esaterako. Talotegia enpresak ere artisautza enpresaren munduarekin uztartuz Euskal Herriko zenbait dendetan taloak saltzen ditu eta aurten ere herriko plazan bere produktuen postua jarriko du, saralegitarrak eta villabonatarrek batera. Maitane Villabona talogileak azaldu duenez, gainera

3 errota erakusgai jarriko dituzte. «2 eskuzkoak izanen dira eta besteak motorrarekin funtzionatu du. Honela prozesu osoa ikusi ahal izanen dute».

10:00etan irekiko dute merkaturia eta ordurako guztiak prest egon dira, baita Plazaola Partzuergoko artisauak ere. Aurten sagardoa, ezta, gazta eta zur lanak izanen dira ikusgai. Taloa baserriarekin erabat loturik dagoen produktua izanik baserri tresneriaren erakusketa egingen dute, baita arto zuriketarena ere.

11:00etan umeentzako ekintzak hasiko dira, hala nola talo tailerra eta talo lehiaketa. Ondoren sariak banatuko dituzte. 12:00etan herri kirol emanaldia egingen dute eskualdeko hainbat harri-jasotzailek eta aizkolariek. Mikel Saralegi eta Aimar Irigoien harri-jasotzen ariko dira, buruz buru eta 3 saio ezberdin egingen dituzte. Aizkoran Julen Cañamases eta Arkaitz Olano Aratz Mugerza eta Ruben Saralegiren aurka ariko dira. Pello Cañamasesek ere motozerrarekin erakustaldia egingen du.

Leitzako 5 jatetxe eta tabernek taloarekin egindako plater ezberdinen erakusketa egingen dute karrapean. Plazaola Partzuergoak ere parte hartuko du, beste plater batekin.

LEITZAKO II. TALO EGUNA ▶ PLAZAN

EGITARAUA

10:00. Azoka irekiko dute. Villabona eta Saralegik taloak egingen dituzte eta Talotegiak bere produktuak salduko ditu.

11:00. Haurrentzako taloak egiteko tailerrak eta haurrentzako talo lehiaketa.

12:00. Herri-kirolak. Harri-jasotzaileak, Aimar Irigoien eta Mikel Saralegi. Aizkolaria,

Julen Cañamases, Arkaitz Olano, Aratz Mugerza eta Arkaitz Olano. Pello Cañamasesek erakustaldia egingen du motozerrarekin. ▶ Goizean zehar Leitzako jatetxe eta tabernek taloarekin egindako plater ezberdinen erakusketa egingen dute karrapean, Basa-Kabik, Musunzarrek, Txokok, Arakindegia eta Gaztañagak.



ALKIZAKO UDALA

FESTAK ONDO IGAROTZEA
OPA DIZUE HERRIKO GUZTIEI
ETA ETORRIKO ZARETENEI

Festa Batzordea

San Martin enparantza z/g • 20494 ALKIZA • Tel.: 943 69 02 35

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Tolosa. *Jesus Elosegri 1907-1979* liburua aurkeztu du Aranzadi zientzia elkarteak udal batzar aretoan 12:30ean, elkarrean 60. urtemugan. Ondoren Jesus Elosegiren omenezko erakusketa zabalduko dute Aranburu Jauregian.

Tolosa. Infantil (1994-95) eta kadete (1992-93) mailetako Tolosa CF eskubaloi taldeetan jokatu nahi dutenek Usabal kiroldegian aurkeztu behar dute 10:00etan.

Tolosaldea. Ernioko mendi lasterketa izango da 10:00etan abiatuta, Aralarko Adiskideak elkarteak antolatuta.

Villabona. Villabonako XII. Azoka Berezia Errebote plazan goiz osoan zehar. Euskal Herriko eta Errioxako produktu tipikoak. 12:00etan Elkarte Arteko XIII. Isats Gisatu Lehiaketa eta 14:30ean bazkaria elkartearen.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Gotzon Etxeberriaren *Olibondoak badu bihotzik* eta Josep M. Codinaren *Orografia personal* pintura eta eskultura erakusketak Aranburu Jauregian. Inaugurazioa, hilaren 7an 19:30ean.

Tolosa. Jesus Elosegiren omenezko erakusketa Aranburu Jauregian.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur

Tolosa. Morant, R. Zabalarreta, 1. 943 673649.

Leitza. Larraia, M.I. Elbarren, 95. 112.

▶ HITZak ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Kubatik Portugalera

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Aresotik paisaia ederra heldu da lehiaketara; Edurne Zabalak udan Kuban ezagututako gizonaren argazkia bidali du

PENICHE (PORTUGAL) ▶

Hegoi Baraibar (Areso).


Naturak beti eskaintzen ditu irudi ederrak. Hegoi Baraibar aresoarrak Portugalen irudi eder horietako bat harrapatzea lortu zuen. «Abuztu haseran Portugaleko Peniche herrian ateratako argazkia da. Hurrunean ikusten dena Das Berlangas Uharteak itsas erreserba bezala sailkatua dena ikus daiteke».



SANTIAGO (KUBA) ▶

Edurne Zabala Artano (Tolosa)

Atlantikoa igaro eta Kubara bidaia egin du Edurne Zabalak udan. Bertako jendearekin harremana ere izan dute eta Jose Bernardo izeneko aitona ezagutu zuten. «Santiagon, Kubako hiri bizi horretan Jose Bernardo ezagutu genuen. Gizon umila eta erromantikoa. Berarekin geunden batean argazkiarena aipatzean posea egiten jarri zen», azaldu digu tolosarrak.



AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza TOLOSAN Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza LEITZAN Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberrak...

hitza Harpidedunen txokoa

Datorren larunbata, **irailak 15** Tolosako Beotibar frontoian ospatuko den **Triku-Jai** jaialdirako **bi harpidedunentzako bina sarrera** zozketatuko ditugu!

Parte hartzeko, deitu zenbaki honetara: **943 65 56 95**

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea

